

Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

Eslovakieraz ez dena, zigortuta

DAVYTH HICKS Eurolang hizkuntza gutxituen agentziako erredaktore buruaren eskutik izan dugu notizia honen berri (artikulu osoa gipuzko-aeuskara.net-en daukazu). Artikuluari ondoko izenburua jarri dio: *Eslovakia: XIX. mendeko hizkuntza-legea XXI. mendeko Europan*.

Kontua da Eslovakiako Legebiltzarrak hizkuntza-legeari egindako zuzenketa polemiko bat onartu duela eta irailaren 1etik aurrera indarrean dagoela. Legeak dio komunikazio ofizialetan eslovakiera ez den hizkuntza erabiltzea mugatuko dela. Murritzeko modua zigorra da, 5.000 eurora irits daitekeen

isuna. Legea anbigua da eta nahiz eta agintariek ziurtatu duten legeak esparru publikoari eragiten diola 1.5 artikulua besterik dio, alegia, ez zaiela aplikatuko Estatuko eta udaltako agintariei bakarrik, baizik eta baita pertsona juridikoei, norberaren kontura lan egiten duten pertsona fisikoei eta partikularrei ere. Hona BBC telebista kateak azaldu-tako gertaera bat. Biztanle gehienak hungariarrak diren Galanta herrian (milioi erdi hungariar bizi da Eslovakian, batik bat hegoaldean) ile-apaindegiko emakume batek kexa helarazi zuen hungarierari eskainitako webgune batean. Irailaren 1etik aurrera bere nagusi eslovakiarrak debekatu egin zion bezeroei hungarieraz hitz egitea. Hicksek dioenez,

legea batik bat hungarierari begira prestatu dute, kontuan izanda Eslovakiako biztanleriaren %9,7 hungariarrak direla. Alabaina, erruteniarrei, ukrainarrei eta alemaniarrei ere eragin diezaike legeak.

“Euskaltzaindia, ekin eta jarrai” liburua

EUSKALTZAINDIAK ESKATUTA Joan Mari Torrealdai eta Imanol Muruak idatzi dute liburua. Akademiak 90 urte bete ditu aurten, eta orain arteko ibilbideaz, orainaz eta etorkizunaz mintzatu dira liburuan. Muruak argi utzi du ez dela Euskaltzaindiaren liburu ofiziala, bi egileek akademiaren inguruan eman duten azalpena baizik.

Dekretuari ezetz

ESPAINIAKO Justizia Ministerioak Ibarretxeren garaiko dekretuari, epaitegi-tako langileak euskalduntzeko dekretuari, kontra egin zion eta orain Auzitegi Nagusiak osotasunean ez bada ere partzialki arrazoia eman dio Justizia Ministerioari. Auzitegi Nagusiak erabaki du, adibidez, hizkuntz eskakizuna ez dela lanpostu guztietan ezarri behar, eta ohar eta jakinarazpenak euskaraz argitaratzea ez dela derrigorrezkoa. Eusko Jaurlaritzak helegitea jarriko du Justizia Ministerioaren erabakia- ren kontra.

Gai honi helduz, *Tiraka* blogean egorospe erabiltzaileak hausnarketa polita egin du: “Eta nik neure buruari: zergatik matraka hori Auzitegiak hartutako erabakiarekin? Zertarako behar dugu Justizia euskalduntzea? Ez irrik egin, eta oldoztu. Zein da helburua? Nik ez dut dudarik: ikaragarri aurrera egingo genuke, ez denek euskaraz ikasiz, baizik eta 10etik 3k erabiliz, nahiz gainerako zazpiek berba bat ere ez jakin euskaraz. Aaaaaamigo, hitz horiek latzak eta potoloak dituk! Hemen kontua denak euskarazko klaseetara bidaltzea omen da, euren titulutxoak atera eta oposizio, lehiaketa eta lekualdaketetan aurkeztu”.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

San Mameseko “pastela” eta beste proiektu batzuk

“Honen guztiaren amaieran... ustelkeria orokorturik dago. San Mameseko proiektu berriak interes ekonomiko boteretsuak mugitzen ditu eta jende asko dago atzean pastelaren zati bat eramateko. Politikoei ere beren komisiok nahi dituzte eta enpresekiko morrontza dute. Eta EAJn dagoen krisiak nahaspila ilun honetan modu ezkorrean eragiten duenez, Athletic-i kalte larria ekar diezaioke (...) Politikari hori ‘sobrekodorea’ da, mahai gainea uzten diozun sobrea hartzen du eta hor duzu kontzesioa (...) Badut bazkide bat, enpresaria ere badena, aitortu didana urte honetan hiru alkateri eman diela dirua. Eta okerrera da beraiek izan zirela dirua eskatu ziotenak”.

Goiko hitzok euskal enpresari batenak dira. Juan de Etxano *Izarone* webguneko sinadura ohikoak duela urtebete zioenez: “Labekada zaharreko enpresaria, bere enpresetako hainbat krisiri irau diona eta gainera frankismo osteko lehen Eusko Jaurlaritzan ardura postua izan zuena”. “San Mames Barria” aurrera eramatea erabaki duten honetan gogoratu dut goragoko salaketa larri hori. 160 milioi euro beharko dituzte, eta Bilboko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak, bien artean, 55 milioi euro jarriko dituzte gure diru publikotik. Proiektu berriak ere iragarri dituzte: Bilbo-Aireportua trenbide konexioa, lehenengo faserako 23 milioi euroko aurrekontuarekin, eta Pasaia portua handitzea, 250 milioi euro zorpetuko dira horretarako. Horrelako proiektuen zalan-tza ekonomiko, politiko, sozial edota ekologikoak aparte –argi berdea dute jadanik–, bidezkoa litzateke “pastel” horiek lagun pribilegiatuen artean ez banatzea, garten-tasun erabatekoa egotea eta obretako esleipenetan justizia egitea.

Juan Mari Arregi

XABIER LETONA

MALTZAGATIK

Presio politikoak bakarrik mugiaraziko du PSE-EE

MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

IBARRETXE PLANA deiturikoa bideratzen ari zenean PSE-EEK behin eta berriz errepikatu zuen hura ez zela bidea, Gernikako Estatutuaren erreforma beste kontsentsu maila batez egin behar zela; batez ere, Estatutua bera eta Espainiako Konstituzioa kontuan hartuta. Madrilgo oniritzia behar zuela alegia, bestela ezingo zuelako Gorteetako langa gainditu eta hori ezinbestekoa delako. Hau da, espainiar gehiengoaren oniritzia behar dela. Defentsa egoeran zen orduan espainiar konstituzionalismoa, gutxiengoan Eusko Legebiltzarrean, eta Ibarretxe Plana ez zen bestelako erreforma behar zen.

Estatutuaren 30. urteurrenean Lopez lehendakariaren mezu nagusia ez da izan kontsentsu berriak eratu behar direla erreforma hori lortzeko; oraingo ez da halakoen beharrik eta horrexegatik Gernikako Estatutua nahikoa da EAEko herritarren "erabaki eskubidea bermatzeko". Inozoenak ere badaki hori ez dela EAEko gehiengo politikoak sinesten duena, ezta PSE-EE berak ere. PP da eremu horretan gustura dagoen bakarra. Tira, edo Eusko Jaurlaritzari heltzeko PSE-PP aliantza gauzatu arte hori zen nik pentsatzen nuena.

Orain akaso desberderdina da, eta PSE-EEK ikusten du aliantza honekin iraun dezakeela beste denbora bat, batez ere 2011ri begira PPrekiko aliantza berresten bada. Eta testuinguru horretan Gernikako Estatutua nahikoa da epe ertainera, batez ere legez kanpoko ezker abertzalea erakundeetan egon ezean, egungo markoa mugiarazteko presio nahikorik ez dagoelako.



Iragan igandean ospatu zen Gasteizen Estatutuaren 30. urteurrena eta bertan ez zen indar abertzalerik izan.

GERNIKAKO ESTATUTUAK baditu lorpenak zalantza barik, eta autogobernuaren bidean azken 30 urteetan pauso garrantzitsuak ematea ahalbidertatua du. Ez da hori, dena den, ezbaian dagoen iltzearen gakoa, ez da inoiz izan. Funtsean, Estatutua euskal herritarren autogobernua asetzeko tresna gisa abiarazi zen, Espainia eta euskal gizartearen artean zegoen gatazka politikoa bideratzeko ubide gisa, eta 30 urte geroago hori da funtsean lortu ez duena.

Ez zuen erdietsi euskal abertzaletasun estatutu zaleak bere onespene osoa eskaini izan zion garai luzean eta zeresanik ez orain, abertzaletasunak bere osotasunean gainditutzat ematen duenean. Ajuria Eneko Ituna, Lizarra-Garaziko Akordioa, Ibarretxe Plana, Kontsulta Legea, Loiolako bake prozesua eta beste hainbat gertaeren jariora begien aurrean igaroten ikusi denean, Gernikako Estatutua EAEko euskal herritarren kontsentsu politikoaren ardatz moduan jarri gura izatea erabat lekuz kanpo dago, errealtate printzipioaren aurka eta, larriena, ez du inondik inora laguntzen bizi den gatazka politikoa gainditzeko.

Ez dago berritasunik analisi hauetan, behin eta berriro egin ohi dira Estatutuaren hainbat urteurrenetan. Beste behin ere kontua da ea nork helduko dion egoera politikoa desblokeatzeko akuiluari. ENAMen mugimenduak bide dira, indar abertzaleen artean ere bai, Espainiako Gobernuak bere mugimendua egin du Batasuneko buruzagien atxilotaketarekin... Erabaki eskubidea aipatu zuen Patxi Lopezek

iragan igandean eta ez da gutxi kontzeptu hori erabili izan beharra. Edozein modutan, presio politikoak bakarrik mugiaraziko du egungo fikzio politikitik eta, gaur gaurkoz, presio politiko hori sentitzetik urruti dago PSE-EE.

ONDAREAREN ZERGA bertan behe- ra utziko du azkenean Gipuzkoako Diputazioak. Gehien duenak zergetan gehiago ordaintzearen anakronismo aurrerakoi hori apurka desegiten jarraitzen da modu horretan. Zerga kontuetan ohikoa den legez, herritarrek lelotzat hartu eta zergatik egiten den behar bezala argudiatu barik. Aipatzen dena da, hori bai, ez duela eraginik izango zerga bilketan, zerga honekin iaz 53 milioi euro bildu zela eta orain kapitalaren errentaren zergaren bi puntuko igoe- rak -%18tik %20ra- estaliko duela zulo hori, hortik 38 milioi euro sartzea espero delako, besteak beste.

Eskuinaren ohiko tesia da krisi egoeretan zergak jaistearrena, garai oparoetan duen tesi bera, horrela inbertsioa eta lehiakortasuna bultzatzen ei dira. Aro guztietarako balio duen araua da.